

# Beharko ez dugun ibilgailua

AUTO ELEKTRIKOA



**OIER ETXEBARRIA** GOIENER

IRUDIA: JCOMP / FREEPIK

Hausnarketa pare batekin hasiko naiz:

Nire gurasoek ez zeukaten autorik Bilbotik Aretxabaletara bizitzera etorri zirenean. Beraien familiengandik urruntzea erabaki zuten, aitzak kooperatibetan lan egin nahi zuelako. Ni jaio aurretik erosi zuten beraien lehen autoa, batez ere, asteburuetan Bilbora joateko eta aitaren laneko joan-etorrietarako. Geroztik, beti izan dugu gutxienez auto bat gurasoen etxean, eta, gaur egun, anaia-arreba-gurasoen etxeetako autoak kontuan izanda –lau etxebizitza–, bost auto ditugu. Ez da gutxi! Gutxiagorekin ere moldatu gaitezke, baina oraindik ez gara kopuru hori murriztera ausartu. Badira hautu hori egin dutenak, baina oraindik han eta hemen egiten ari diren proba pilotuak besterik ez da eta publizitate askorik ez daukate.

Auto elektrikoek dagokienez, eredia Norvegia dela esaten dute; bada, nire lankide bat Oslon azken aldiz egon zenean, kaleetan ez zuen apenas autorik ikusi martxan. Bateren batzuk bai aparkatuta, eta, batez ere, sei minutuan behin pasatzen ziren autobus eta tranbiak. Ikusi duzue Primeran plataforman *The Architect* telesaila? Etorkizuneko Oslon gertatzen da: autorik ez dago

eta autoendako aparkalekuak hutsik daude!

## Hiru mugak

Goazen harira. Duela urte batzuetatik hona, etorkizuna auto elektrikoaz betea izango dugula entzuten ari gara. Orain munduan dauzkagun 1.400 milioi autoak elektrikoak izango omen dira urte batzuk barru, baina hori ezin dela gertatu dioten ikerlari asko dago. Hiru muga aipatzen dituzte. Bat: behar diren mineral kritikoen kantitatea –litioa, nikela eta kobaltoa, adibidez–. Bi: beharko den argindarra lau edo bost aldiz handitu beharko litzateke, horrek dakarren material mugekin. Hiru: kargarako azpiegiturak eta sare elektriko berriak beharko duten kobrea. Munduan 15-20 urte barru 1.400 milioi auto elektriko izango ditugula uste duzu?

Maila teknikoan dauden arazoez gain, gizarte mailan sortu daitezkeenak kontuan izan beharra dago. Demagun gaur egungo autoen %10 bakarrik ordezkatzen dela elektrikoekin. Norentzat izango dira auto horiek? Ordaindu ahal dituztenentzat? Auto horien jabeek bestelako autoekin egin ezin direnak egiten utziko diegu? Adibidez, hirien erdiguneetara sartzeara? Ibilgailu elektrikoekin funtsezko beharrak betetzea lehenestea ez litzateke hobe? Auto pribatua benetan beharrezkoa da?



Gure egunerokoan daukan eragina kontuan izateko, begira Ivan Illichek 1974ko *Energy and Equity* lanean egin zituen gogoetak: uttero auto barruan egiten ditugun orduei, autoa, erregaia, aseguruia, mantentzea... ordaintzeko egin behar ditugun lanorduak batzen badizkiegu, zenbat ordu ateratzen zaizkigu? Haren azterketan, 1974ko Ameriketako Estatu Batuetan 1.600 ordu zirela ondorioztatu zuen. Gaur egun, eta Euskal Herrian, hainbeste ez direla



## 15 MINUTUKO AUZO- HERRIEZ GAIN, GARRAIO PUBLIKOA INDARTZEN BADUGU, ZERTARAKO BEHARKO DUGU AUTO PRIBATUA?

izango uste dut. Kalkulu azkar batean, niri 400 ordu atera zaizkit –hamar lan-aste oso!–, 12.000 kilometro urtean eta 30 euro/h soldata gordina duen auto gidari batentzat. 12.000 kilometro egiteko 400 ordu behar baditugu, 30 km/h abiadura mugitzen garela ondorioztatu daiteke. Automobil pribatuek edonora eta nahi dugunean azkar eramaten gaituzten ustearen kontra doa hau. Autoak gero eta azkarrago joateak nori egin die mesede, pertsonen joan-

etorriei ala kapitalaren zirkulazioari?

### Distantziak luzatuz

Norbere autoarekin edonora eta edonoiz joateko aukera izateko, hirietan eta hirien arteko lurraldeetan egin ditugun eraldaketak ere ez dira nolana hikoak. Gainera, eraldaketa horretan sakontzeko, inbertsio handiak egiten jarraitzen dugu oraindik –Bilboko itsasadarren azpiko tunela, azken adibidea–. Azpiegitura horiek

elkarrengandik urrundu egiten gaituzte, bizitokiak, merkataritza-guneak, lantokiak eta aisialdirako guneak urrutiratuz. Autoek distantziak mozteko ala elkarrengandik urruntzeko balio dute? Denbora aurrezten laguntzen digute edo denbora lapurtzen digute? Bizitokiak eta bizitzeko behar duguna hurbilago baleude, autoak beharko genituzke?

Ideiak idaztea erraza da, baina ideia horiek aurrera eramateko egin behar diren eraldaketekin asmatzea ez hainbeste. Mugikortasun eredua aldatzeko, gizarte eredua ere aldatu beharra daukagu. Horren harira, 15 minutuko auzo-herriei buruz gero eta gehiago entzungo dugulakoan nago. Bizi garen tokitik oinez hamabost minutuan behar dugun dena, gehiena, izateko egitasmo bat da, Europatik datorrena eta indarra hartzen joango dena. Urtero hamar aste toki batetik bestera autoz mugitzeko baino gehiago, bestelako gauzak egiteko izango ditugu! Hamabost minutuko auzo-herriez gain, garraio publikoa indartzen badugu, zertarako beharko dugu auto pribatua?

Artikulu hau Joanes Igeregi Santamariak [www.jakin.eus](http://www.jakin.eus) aldizkarian argitaratutako *Emisio gutxiko eremuak, emisio handiko gizarteetan* artikuluan inspiratua izan da. ■■■